# Pribatuen Iragarkiak

## HOBETUZ

IRAGARKIA, Hobetuz-eko zuzendari gerentearen ondoko ebazpena argitaratzeko dena: 2007ko ekitaldian, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek aurrera eramaten dituzten prestakuntzetako premiak atzeman eta aztertzeko estudioak, haien trebetasunak eta kualifikazioak hobetzeko direnak, gauzatzeko diru-laguntzak emateko dena. 2007ko azaroaren 13ko Aginduaz onartu zen laguntza horietarako deialdia (2007ko azaroaren 19ko EHAA, 222 zk.). 15465

# Anuncios Particulares

## HOBETUZ

ANUNCIO por el que se da publicidad a la Resolución del Director Gerente de Hobetuz, por la que se otorgan ayudas económicas para la realización de Estudios de Análisis y Detección de Necesidades de Formación que se desarrollen por parte de las empresas de la Comunidad Autónoma del País Vasco para el ejercicio 2007 y que sirvan como base para la mejora de sus competencias y cualificaciones, aprobada por Orden de 13 de noviembre de 2007 (BOPV n.º 222, de 19 de noviembre de 2007). 15465

# Xedapen Orokorrak

## JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

### 3628

2/2008 LEGEA, maiatzaren 28koa, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen hirugarren aldaketarena.

Eusko Legebiltzarrak maiatzaren 8ko 2/2008 Legea, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen hirugarren aldaketarena, onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei.

ZIOEN AZALPENA

Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legeak 105. artikuluan hauxe ezartzen du: Ertzaintza osatzen dute Eskala Gorenak, Ikuskapen Eskalak, Betearazpen Eskalak eta Oinarrizko Eskalak. Eskala horiek herri-administrazioetako funtzionarioen A, B, C eta D sailkapen-taldeei dagozkie hurrenez hurren, sartzeko eskatzen den titulazioaren arabera.

Alabaina, azken urteetan herri-administrazioek hainbat arau-aldaketa burutu dituzte, sailkapeneko D taldeko poliziako funtzionarioei dagokienez. Arau-aldaketa horiek hainbat eduki eta ondorio ezberdin dituzte, hala ere denen lokarria da funtzionario horiek sailkapeneko D taldetik C taldera pasatzea.

Birsailkatze hori Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoetan ordezkaritza duten sindikatuen aldarrikapen bihurtu da; izan ere, Ertzaintzaren eremu berezirako abenduaren 27ko 438/2005 Dekretuaren bidez onartutako lan-baldintzak arautzen dituen akordioaren

# Disposiciones Generales

## PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

### 3628

LEY 2/2008, de 28 de mayo, de tercera modificación de la Ley de Policía del País Vasco.

Se hace saber a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente Ley 2/2008, de 28 de mayo, de tercera modificación de la Ley de Policía del País Vasco

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La Ley 4/1992, de 17 de julio, de Policía del País Vasco, establece en su artículo 105 que la Ertzaintza está formada por las escalas Superior, Ejecutiva, de Inspección y Básica, correspondientes respectivamente a los grupos A, B, C y D de clasificación de los funcionarios de las administraciones públicas vascas en función de la titulación exigida para el ingreso.

No obstante lo anterior, en los últimos años se han venido sucediendo modificaciones normativas llevadas a cabo por distintas administraciones públicas respecto de los funcionarios policiales pertenecientes al grupo D de clasificación. Tales modificaciones normativas presentan un contenido diverso y unas consecuencias diferentes, pero todas ellas tienen un nexo común cual es el paso de tales funcionarios del grupo D de clasificación al grupo C.

Dicha reclasificación se ha erigido en una reivindicación para las organizaciones sindicales con representación en los cuerpos de policía del País Vasco, que, en el ámbito singular de la Ertzaintza, ha sido atendida en el artículo 55 del acuerdo alcanzado para la regula-

55. artikuluak jaso baititu; akordio horrek 2005, 2006 eta 2007. urteetarako indarraldia du.

Eusko Legebiltzarrak, 2006ko ekainaren 30ean egindako osoko bilkuran legez besteko proposamen bat onestea erabaki zuen, honela zioena: «Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, Ertzaintzaren lan-baldintzak arautzeko indarrean den akordioak esanikoari jarraiki Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako agenteak C taldeari atxikitzeko aukera emateko arauak aldatzeko prozesuaren barruan, antzeko aldaketak bultza ditzala udaltzaingoen oinarrizko eskalarentzat ere, Eudelekin adostu bezala».

Agindu hori betez, lege honek aldatu beharrekoa aldatzen du, Euskal Herriko polizia-kidegoetako oinarrizko eskalako funtzionarioen aipaturiko sailkapen-taldeaz aldatzea ahalbidetzeko, aldatu ere Eudel-Euskadiko Udalen Elkartea ados izanik, neurri horrek Euskal Herriko Polizia Kidegoa osatzen duten giza baliabideak modu zentzuzkoagoan kudeatzeko aukera emanen duen uste betean; halatan antolamendu juridikoak esleitzen dizkien egitekoak betetzean eraginkortasun eta efikazia gehiago ekarriko du ere.

***Lehenengo artikulua.***– Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 105. artikulua aldatzea.

Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 105. artikuluari 4. paragrafoa gehitu zaio, honela dioena:

«4.– Artikulu honetako lehenengo paragrafoan xedatutakoa xedaturik dagoela, sartzeko oinarrizko ikastaroa eta praktika-aldia gainditu eta gero, Ertzaintzako Oinarrizko Eskalako karrerako funtzionario izendatutakoak euskal herri-administrazioetako funtzionarioen C sailkapen-taldean sailkatuta daudela ulertuko da.

Sailkatze horrek ondorio ekonomiko eta administratiboak izango ditu, Ertzaintzaren eremuari mugatuko direnak soilik, eta ez du izango inolako baliokiderik ezta errekonozimendurik ere arlo akademikoan, irakaskuntzakoan edo heziketakoan».

***Bigarren artikulua.***– Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 118. artikulua aldatzea.

118. artikuluari 2. paragrafo berria gehitzen zaio. Oraingo 2. paragrafoa 3. paragrafo bihurtzen da. Hona 2. paragrafoak zer esango duen:

«2.– Aurreko paragrafoan xedatutakoa xedaturik dagoela, sartzeko oinarrizko ikastaroa eta praktika-aldia gainditu eta gero, Tokiko Poliziaren kidegoetako oinarrizko eskalako funtzionario izendatutakoak euskal herri-administrazioetako funtzionarioen C sailkapen-taldean sailkatuta daudela ulertuko da.

Sailkatze horrek ondorio ekonomiko eta administratiboak izango ditu, soilik udalen mende diren polizia-kidegoen esparruan, eta ez du izango inolako balioki-

ción de sus condiciones de trabajo con vigencia para los años 2005, 2006 y 2007, aprobado mediante Decreto 438/2005, de 27 de diciembre.

En sesión plenaria del Parlamento Vasco celebrada el 30 de junio de 2006, fue aprobada una proposición no de ley en virtud de la cual el Parlamento instaba al Gobierno a que «en el proceso de reformas normativas tendentes a posibilitar la adscripción de quienes integran la Escala Básica de la Ertzaintza al grupo C de titulación, previsto en el vigente acuerdo regulador de las condiciones de trabajo de la Ertzaintza, promueva similares reformas para la escala básica de los Cuerpos de Policía local, de conformidad con Eudel».

Cumpliendo tal mandato, la presente Ley aborda la modificación precisa para el aludido cambio de grupo de clasificación de los funcionarios de la escala básica de los cuerpos de policía del País Vasco, contando con la conformidad de Eudel-Asociación de Municipios Vascos, y ello en el entendimiento de que dicha medida va a permitir una más racional gestión de los recursos humanos que conforman el Cuerpo de Policía del País Vasco y, por ende, una mayor eficiencia y eficacia en el cumplimiento de las funciones que les atribuye el ordenamiento jurídico.

***Artículo primero.***– Modificación del artículo 105 de la Ley 4/1992, de 17 de julio, de Policía del País Vasco.

Se adiciona un apartado 4 al artículo 105 de la Ley 4/1992, de 17 de julio, de Policía del País Vasco, con el siguiente tenor literal:

«4.– No obstante lo dispuesto en el apartado primero de este artículo, quienes, tras superar el curso básico de acceso y el período de prácticas, sean nombrados funcionarios de carrera de la Escala Básica de la Ertzaintza, se entenderán clasificados en el grupo C de clasificación de los funcionarios de las administraciones públicas vascas.

Dicha clasificación tendrá efectos económicos y administrativos exclusivamente limitados al ámbito de la Ertzaintza y no supondrá equivalencia o reconocimiento alguno en el ámbito académico, docente o educativo».

***Artículo segundo.***– Modificación del artículo 118 de la Ley 4/1992, de 17 de julio, de Policía del País Vasco.

Se adiciona un nuevo apartado 2 al artículo 118. El actual apartado 2 queda como apartado 3. La redacción del nuevo apartado 2 es la siguiente:

«2.– No obstante lo dispuesto en el apartado anterior, quienes, tras superar el curso básico de acceso y el período de prácticas, sean nombrados funcionarios de la escala básica de los cuerpos de Policía local, se entenderán clasificados en el grupo C de clasificación de los funcionarios de las administraciones públicas vascas.

Dicha clasificación tendrá efectos económicos y administrativos exclusivamente limitados al ámbito de los cuerpos de policía dependientes de las entidades locales

derik ezta errekonozimendurik ere arlo akademikoan, irakaskuntzakoan edo heziketakoan».

***Hirugarren artikulua.***– Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legeari hemeretzigarren xedapen gehigarria gehitzea.

Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legeari hemeretzigarren xedapen gehigarria gehitu zaio, honela dioena:

«Hemeretzigarrena. Lege honen 59, 105 eta 118. artikuluetan adierazitako titulu-eskakizun orokorra betetzat joko da Euskal Herriko polizia-kidegoen oinarrizko eskalako funtzionarioak barne-sustapena bidez Ikuskapen Eskalan sartzeko prozeduran lehiatzen badira».

XEDAPEN GEHIGARRIAK

***Lehenengoa.***– Ordainsari osoen urteko kopurua ezin aldatzea.

Lege honetan aurreikusitakoa aplikatzeak ez du ekarriko gastu publikoa gehitzea ezta Euskal Herriko polizia-kidegoen oinarrizko eskala osatzen dutenek jasotzen dituzten ordainsari osoen urteko kopurua aldatzea ere, beraz aipatu aldaketak dakarren oinarrizko ordainsarien gehikuntza berariazko osagarriaren osagai orokorrean irentsiko da Ertzaintzaren kasuan, eta bestelako ordainsari osagarrietan Tokiko Poliziaren kasuan.

***Bigarrena.***– Antzinatasuna baloratzea.

Ertzaintzako Oinarrizko Eskalan 2005eko urtarrilaren 1az gerozik osatutako hirurtekoak ordaintzeko ondorioei begira, euskal herri-administrazioetako funtzionarioen sailkapeneko C taldearen arabera baloratuko dira, talde horretan sailkatu baitira aipatutako eskalako funtzionarioak, lege honek Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 105. artikuluari gehitzen dion 4. paragrafoan xedatutakoaren arabera. Balorazio horrek ez du inolaz ere aldatuko antzinatasuna dela-eta jasotako ordainsariak eta automatikoki ordainsari osagarri osoa irentsiko du, hain zuzen, aipatu egunetik aldi baterako ezarritakoa, sailkapeneko talde berriko hirurtekoaren eta aurreko sailkapen-taldeko hirurtekoaren artean dagoen balio-ezberdintasuna konpentsatzeko.

Ertzaintzako Oinarrizko Eskalan 2005eko urtarrilaren 1a baino lehen osatutako hirurtekoak ordaintzeko ondorioei dagokienez, osatu ziren momentuan aipatu eskalari zegokion sailkapen-taldearen arabera baloratuko dira.

Lege hau indarrean sartu ondoren Tokiko Poliziaren oinarrizko eskalan osatuko diren hirurtekoak, euskal herri-administrazioetako funtzionarioen sailkapeneko

y no supondrá equivalencia o reconocimiento alguno en el ámbito académico, docente o educativo».

***Artículo tercero.***– Adición de una nueva disposición adicional decimonovena a la Ley 4/1992, de 17 de julio, de Policía del País Vasco.

Se adiciona una nueva disposición adicional decimonovena a la Ley 4/1992, de 17 de julio, de Policía del País Vasco, con el siguiente tenor literal:

«Decimonovena.– El requisito general de titulación al que se refieren los artículos 59, 105 y 118 de esta ley se entenderá cumplido en el caso de las personas funcionarias de la escala básica de los cuerpos de policía del País Vasco que concurran a los procedimientos de ingreso mediante promoción interna en la escala de inspección».

DISPOSICIONES ADICIONALES

***Primera.***– Invariabilidad del cómputo anual de las retribuciones totales.

La aplicación de lo previsto en la presente Ley no podrá suponer incremento de gasto público ni modificación del cómputo anual de las retribuciones totales que vienen percibiendo los integrantes de la escala básica de los cuerpos de policía del País Vasco, por lo que el incremento en las retribuciones básicas que dicho cambio comporta se absorberá en el componente general del complemento específico en el caso de la Ertzaintza, o en otras retribuciones complementarias en el caso de la Policía local.

***Segunda***.– Valoración de la antigüedad.

Los trienios perfeccionados en la Escala Básica de la Ertzaintza a partir del 1 de enero de 2005 se valorarán a efectos retributivos de acuerdo con el grupo C de clasificación de los funcionarios de las administraciones públicas vascas en el que han quedado clasificados los funcionarios de la citada escala, conforme a lo dispuesto en el apartado 4 que la presente Ley adiciona al artículo 105 de la Ley 4/1992, de 17 de julio, de Policía del País Vasco. Dicha valoración no supondrá modificación alguna de las retribuciones ya percibidas por razón de antigüedad e implicará la automática absorción de todo complemento retributivo que con carácter transitorio se haya establecido desde dicha fecha en orden a compensar la diferencia de valor existente entre el trienio del nuevo grupo de clasificación y el trienio del grupo de clasificación anterior.

Los trienios perfeccionados en la Escala Básica de la Ertzaintza con anterioridad al 1 de enero de 2005 continuarán valorándose a efectos retributivos de acuerdo con el grupo de clasificación que correspondía a la citada escala en el momento en el que fueron perfeccionados.

Los trienios que se perfeccionen en la escala básica de la Policía local a partir de la entrada en vigor de la presente Ley se valorarán a efectos retributivos de acuerdo

C taldearen arabera baloratuko dira, hor baitira sailkatuak eskala horretako funtzionarioak.

Lege hau indarrean sartu baino lehen Tokiko Poliziaren oinarrizko eskalan osatutako hirurtekoak ordaintzeko ondorioei dagokienez, osatu ziren momentuan aipatu eskalari zegokion sailkapen-taldearen arabera baloratuko dira.

***Hirugarrena.***– Titulazio-talde berriak.

Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legeak A, B, C eta D sailkapen-taldeak aipatzen dituen guztietan lanbide-sailkapeneko talde berriei egingo die erreferentzia, baliokidetasun hauen arabera:

| | |
|---|---|
| A taldea | A taldea, A1 azpitaldea |
| B taldea | A taldea, A2 azpitaldea |
| C taldea | C taldea, C1 azpitaldea |
| D taldea | C taldea, C2 azpitaldea |

XEDAPEN IRAGANKORRA

Lege honek adierazitakoa indarrean sartzean Ertzaintzako Oinarrizko Eskalako karrerako funtzionarioak direnei ere aplikatuko zaie bai eta Tokiko Poliziaren kidegoetako oinarrizko eskalako funtzionarioei ere.

AZKEN XEDAPENA

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko ekainaren 3a.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

con el grupo C de clasificación de los funcionarios de las administraciones públicas vascas en el que han quedado clasificados los funcionarios de la citada escala.

Los trienios perfeccionados en la escala básica de la Policía local con anterioridad a la entrada en vigor de la presente Ley se seguirán valorando a efectos retributivos de acuerdo con el grupo de clasificación que correspondía a la citada escala en el momento en que fueron perfeccionados.

***Tercera***.– Nuevos grupos de titulación.

Las menciones de la Ley 4/1992, de 17 de julio, de Policía del País Vasco, a los grupos de clasificación A, B, C y D, se entenderán referenciadas a los nuevos grupos de clasificación profesional, conforme a las siguientes equivalencias:

| | |
|---|---|
| Grupo A | Grupo A, subgrupo A1 |
| Grupo B | Grupo A, subgrupo A2 |
| Grupo C | Grupo C, subgrupo C1 |
| Grupo D | Grupo C, subgrupo C2 |

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Lo dispuesto en la presente Ley igualmente será de aplicación a quienes a la fecha de su entrada en vigor ostenten ya la condición de funcionarios de carrera de la Escala Básica de la Ertzaintza o funcionarios de la escala básica de cuerpos de la Policía local.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Ley entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Por consiguiente, ordeno a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Vitoria-Gasteiz, a 3 de junio de 2008.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

**KULTURA SAILA**

**3629**

88/2008 DEKRETUA, maiatzaren 13koa, Etxepare Euskal Institutua / Basque Instituteren antolakuntza- eta jarduera-Araudia onartzen duena.

Apirilaren 20ko 3/2007 Legez sortu eta arautútako Etxepare Euskal Institutua/ Basque Institute zuzenbide pribatuko erakunde publikoa da, bere helburua EAEtik

**DEPARTAMENTO DE CULTURA**

**3629**

DECRETO 88/2008, de 13 de mayo, por el que se aprueba el Reglamento de organización y funcionamiento del Instituto Vasco Etxepare Euskal Institutua / Basque Institute.

Por Ley 3/2007, de 20 de abril, de creación y regulación del Instituto Vasco Etxepare Euskal Institutua / Basque Institute, como un ente público de derecho